# Ikasleak Wikipedian editore izatearen onurak ikasketa prozesuan

## *Benefits of students being Wikipedia editors in the learning process*

Behin behineko dokumentua

**Eneko Bidegain[1], Idurre Alonso[2], Jon Mentxakatorre[3]**

[1]Mondragon Unibertsitatea
ebidegain@mondragon.edu

[2]Mondragon Unibertsitatea
ialonso@mondragon.edu

[3]Mondragon Unibertsitatea
jmentxakatorre@mondragon.edu

**Laburpena**

Ohikoa da ikasleek Wikipedia erabiltzea lanak egiteko, informazio iturri gisa edota zuzenean kopiatuta. Ikerketa honetan esperimentu bat egin da unibertsitateko ikus-entzunezko graduko lehen urtekoekin, lau urtez jarraian: euskarazko Wikipediako editore lanetan jarri dira, ikasgaietako batean landu beharreko konpetentziak garatzeko metodo gisa. Denen artean 412 artikulu sakon sortu edo garatu dituzte. Ariketa bukatu ondoren ikasleei pasatako galdetegian, eta ikasle batzuei eta irakasleei egindako elkarrizketan jaso denaren arabera, ariketa horrek balio izan die hainbat konpetentzia lantzeko, besteak beste idatzizko komunikazioa eta dokumentazio lana. Publikoki agertutako lana izateak ikasleen motibazioa eta erantzukizuna eragin ditu. Wikipediako artikuluak editatzerakoan, ikasleek ardura handiagorekin eta sakontasunez lan egin dute, eta ulertu dute zein garrantzitsua den iturri fidagarriekin lan egitea.

**Hitz gakoak:** ikasketa, Wikipedia, konpetentziak, unibertsitate hezkuntza